

Nazioarteko kalifikazio agentziak **aurreikuspen egonkorrean** jarri du finantza-erakundea

## **Moody's-ek A3ra igo du Kutxabanken kalifikazioa**

- **Positibo iritzi dio kreditu-neurrien eta errentagarritasunaren hobekuntzari, bai eta kapital-posizio sendoari ere**
- **Berankortasunaren ratioa %1,4raino hobetzeko izan duen gaitasuna nabarmendu du, sektoreko baxuena, eta errentagarritasuna aurrerapena Covid-aurreko mailetara eraman izana**

**2022ko azaroaren 25ean.** Moody's nazioarteko agentziak Kutxabanken epe luzerako gordailuen kalifikazioa A3ra igo du, eta aurreikuspen egonkorrean jarri du. Bere erabakian, bankuaren berezko kalifikazioa (BCA) Baa2tik Baa1era hobetu du; CRR kalifikazioa A3tik A2ra, eta lehentasunezkoa ez den zorra Baa3tik Baa2ra, aurreikuspena egonkorrean ezarriz.

Moody's-ek Kutxabanken bilakaerari buruzko argudioetan positibo iritzi dio kreditu-neurrietan izandako aurrerapenari, errentagarritasunaren hobekuntzari eta kapital-posizio sendoari, batik bat ekonomian moteltze zantzuak ageri direnean.

Era berean, Bankuaren errentagarritasuna Covid-en aurreko mailara iritsi izana nabarmendu du, eta bere hipoteka-zorroaren egitura onetsi du, interes-tasen testuinguru berrian bilakaera ona izan dezakeela uste baitu, baita arau berriak (bankuen aparteko zergak) kontuan izanda ere, eta inflazio-presioek eragindako kostuen igoera tarteko.

Moody's-ek bere oharrean Kutxabankek bere berankortasun-tasa % 1,4ra murrizteko izan duen gaitasuna azpimarratu du, alorreko % 3,6ko batez bestekoaren oso azpitik. Era berean, aktibo ez-produktiboen ratioa sektoreko batez bestekoaren azpitik da, eta estaldura maila handienetakoa du.

Moteltze ekonomikoaren testuinguruak familien eta enpresen berankortasunak handituko dituela uste duen arren, Kutxabankek kapitalean edo arriskueta dituen posizio sendoek egoerari aurre egiten lagunduko diotela adierazi du agentziak.

Kutxabanken ratioak Espainiako finantza sistemako onenetakoak dira. Bere CET1 ratioa eta phased-in kaudimen osoa % 17tik gorakoak dira.